



KOLDO MITXELENA

LINGUISTA ETA IKERTZAILEA

JEAN HARITSCHELHAR
(*Euskaltzainburu ordea*)

Duela orain zazpi urte, Euskaltzaindiak bildu zituelarik munduko euskalariak Gernikan eta Leioan, galdegin zitzaidan zertan ziren, orduan, «Euskarari buruzko ikerketak».

Aztertu nituelarik berrogei eta hamar urte aintzinagoko euskarari buruz egin ziren ikerketak, ohartu nintzan 1950etik onarar Koldo Mitxelenaren lanen garrantziaz eta lehentasunaz. Eta egia da liburu eta artikuluen bitartez agertzen zaigula euskal ikerketetan jakintsu haundi eta egiazko maisu.

— Koldo Mitxelenak idatzi duen lehen liburua, onomastikaz da. Argitaratu zuen 1953 an «Apellidos Vascos» deituta-

koa. Orain, hirugarren edizioan dago, salatzen baitigu zer arrakasta handia ukan duen. Nehork ez dezake deitura eta izenez zerbait jakin liburu hori eskuratu gabe. Artikuluetan ere ikus daiteke gure adixkide zenak sakondu dituen gaiak: «*Introducción fonética a la onomástica vasca*», «*El genitivo en la onomástica medieval*», «*Notas lingüísticas a la colección diplomática de Irache*», «*Toponimia, léxico y gramática*», «*Onomástica y población en el antiguo reino de Navarra: la documentación de San Millán*».

Fonetika, hiztegia, gramatika, linguistika, beti sakonki eta zuhurki ari izan da Koldo Mitxelena, bereziki onomastika gaian, utziz alde batera bestetan hain ugari agertzen diren asmakizun zientzia eskasekoak.

— Aspaldidanik maite ukan dute Euskaldunek dialektologia, ikusiz eta aztertuz euskalkien berezitasuna. Nehork baino hobeki bazakien Koldo Mitxelenak zer eman zezakeen euskalkien ikertzeak euskararentzat. Aski da irakurtzea zer idatzi duen horretaz *Sobre el pasado de la lengua vasca* deitzen den liburuaren zati batean. Aski da irakurtzea erronkarierari buruz eginikako artikulua: *Contribución al conocimiento del dialecto roncalés*, orai zendua den euskalki horren berriak jakiten baititugu Koldo Mitxelenari esker.

Nahiz euskara batuaren alde izan den (Orroit gaitzezen Arantzazuko biltzar famatuaz) euskara batua beharrezko delakotz erakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan eta abar, beti esan du eta Euskaltzaindiak harekin, ez zela batera euskara batua euskalkien aurkakoa eta euskara batua euskalkietan oinarritzen zela. Hortakotz Euskaltzaindiko talde bat lanean dabila Hizkuntz Atlas baten egiten euskalkieri buruz lan zientifiko beharrezkoa baita.

— Linguistika aipatzerakoan Koldo Mitxelenaren lan nagusia daukagu gogoan. Madrilen 1959 ean irakurtu zuen bere tesia *Fonética histórica vasca*. Liburu horrekin orduko teoriarik aurreratuena, estrukturalismoa, sartzen zen euskal linguistikan. Ez da bakarrik euskal fonetikaren deskribapena, bainan tituluak salatzen duen bezala, diakronia edo euskal fonemen aldakuntza historikoa azterturik dago. Gehiago dena aurrehistoriako euskararen bila eta haren berrasmatzera doa Koldo Mitxelena, osatzen duen teoria hori *Lenguas y protolenguas* deritzan liburuarekin.

Beti diakronia eta euskararen bilakaera gogoan izanez, testu zaharrenen bila doa Erromatarren garaiko Akitaniako idazkietatik hasirik eta bildu ditu *Textos arcaicos vascos* delakoan. Liburu bikaina, beharrezkoa euskal filologiarentzat, eskupean euskalariak ukan behar dutena. Eta nola ez berriz aipa, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, liburu horrek argi eta garbi agertzen baititu Koldo Mitxelenaren hizkuntz teoriak. Euskalkiak aztertuz eta dituzten berezitasunak ikertuz, euskararen historiak eta aurre historiak baliatuz, neurtzen ditu Koldok latinari eta erromano hizkuntzeri egin diren maileguak eta berdin Erromanoen aurreko Indo Europearren herexak gure hizkuntzan. Horiek hola, euskararen eta beste hizkuntza batzuen ahaidetasunari buruz emaiten ditu bere iritziak, baztertuz gehien bat euskararen eta Kaukasiako hizkuntzen arteko ahaidetasuna.

— Akademia batek, eta nolaz ez Euskaltzaindiak, bere eginbiderik premiatsuen du hiztegi baten egitea. Hortakotz galdegin zion Koldo Mitxelenari lan izugarri horretan sartzeari. Talde bat bere inguruan bildurik eta gaurko tresneria berriak baliatuz, sekulan bildu izan ez den hitz «corpus» bat osaturik dago, euskalki guzietako idazleak hartuz eta ordenadore «memoria» batean sartuz. *Orotariko euskal hiztegia* deituko den hiztegi haundi horren lehen liburukia (hamar bat izango dira orotarak) agertuko da, datorren hila batean Durangoko liburu azokan. Ez du gure adixkide zenak lehen liburukiaren agertzearen poza ezagutuko.

Dakiguna da, Ibon Sarasolak eta hiztegi taldeak segituko dutela beren lana kontutan harturik Koldo Mitxelenaren erabakiak eta urratu duen bidetik ibiliko direla. Eta hori izanen da zinez Koldo Mitxelenaren hiztegia.

— Ez dezagula pentsa hizkuntzalari bakarrik izana dela Koldo. Maite zuen literatura, maite zituen idazleak, lehenengoak orainkoak bezala eta irakurtu ditu nehorik irakurtu dituen baino hobeki. Idatzi du *Euskal Literatura* bat, euskal literaturatan den hoberena, bere iritziak emanez, neurtuz idazle bakoitzaren ahalak eta merezimeduak, aztertuz alde onak eta berdin ere ez hain onak.

Huna beraz, gaingiroki bada ere, gaur nola ohoratzen dugun Koldo Mitxelenaren jakituriaren bilduma. Nahi nuke erran haren fama haundia ez dela bakarrik Euskal Herrian egon. Hedatu da munduan zehar, ezagutua delarik mundu guziko hizkuntzalarien artean. Salamankako Unibertsitatean Katedradun izana, Euskal Herriko Unibertsitatean halaber, Parise-Sorbonako Unibertsitateko erakasle izana da ere. Due-la bost urte, 1982 ko ekainaren 15 ean, Bordeleko Unibertsitatean egiten nion ongi etorria «Doctor honoris causa» izen-datu ginuelarik eta hauxe nion:

«Ongi etorri zuri, adixkide ona. Zer poza nerretzat eta hemen diren Euskaldunentzat zure kausitzea egun, Bordeleko unibertsitateko gela nagusi honetan, gu tarteko ohorezko kide eta lagun egina, sortzen baitira ofizialki Euskal Herriko unibertsitate gazte eta Bordeleko Unibertsitate adintsuaren arteko lokarri bereziak. Zurekin Euskal Herria, euskal erakaskuntza, euskal ikerketak eta euskara ongi hartuak dira, ohoretan ezarriak, goihen gradoa iganak. Zu zaude hemen heien mezulari; harzkitzu beraz neure bihotzetik jinikako goresmenik bizienak».

Eta gaur, Errenteriako Udaletzeko gela honetan, Koldo adiskidea, omenezko hitz bertsuak errepikatzen ditut: Bai, Koldo, zurekin Euskal Herria, euskal erakaskuntza, euskal ikerketak eta euskara ongi hartuak izanak dira, ohoretan ezarriak, goihen gradora iganak.

Zu izan zira heien mezulari lehena.

